



**Arartekoaren 2013ko maiatzaren 15eko ebazpena. Horren bidez Sestaoko Udalari gomendatzen zaio barne dekoratzaile eta diseinatzaileek hainbat proiektu idatzi eta zuzentzeko duten eskumena aitortu dezan.**

### Aurrekariak

1. Bizkaiko Barne Dekoratzaile eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak (aurrerantzean Elkargoa) kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan Sestaoko Udalak erantzun ez zuelako trastelekuak instalatzeko proiektu bat egiteko barne dekoratzaile/diseinatzaileek duten eskumenaren inguruan.

Elkargoak bere kezka sakona helarazi du udalak komunikazioei erantzunik eman ez dielako eta isilik egon delako eta arazoari, erreklamazioei eta udal teknikariekin gaia jorratzeko harremanetan jartzeko saiakerari buruzko dossierra erantsi du elkargoko kideek trastelekuak instalatzeari buruzko proiektuak sinatzeko duten ahalmen profesionala defendatuz. Hori guztia udalari bidalitako hainbat idazkiri jarraiki, besteak beste: 2011ko urtarrilaren 24koa; 2011ko otsailaren 4koa (...ren eskaera); 2011ko maiatzaren 18koa; 2011ko abuztuaren 3koa; 2012ko martxoaren 5koa, hainbat fax eta postaz gain.

Kexan azaltzen ziren kontu formalez gain, gaiaren funtsari dagokionez, beste hainbat argudioren artean, Elkargoak 2009ko urriaren 28ko Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Epaia gaineratu zuen. Bertan, profesional horiek etxebizitza bat guztiz berritzeko proiektu bat egiteko duten eskumena azaltzen da, bizigarritasun baldintzen aldaketa eta dagokion Segurtasun Azterlana dakarrena.

2. Sestaoko Udalak gure informazio-eskaerari erantzun zion Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Ataleko buruak bidalitako txostena bidaliz. Txosten horrek, azaltzen dituen argudioen arabera, ondorengo atalean baloratuko ditugunak, ondorioztatzen du Eraikuntzako Kode Teknikoan xedatutakoari zorrozki jarraiki udalak uste duela dekoratzaileek ezin dutela EKT hori justifikatu.

Aurrekariak ikusita, ebazpena ematea egokitzen jo dugu, ondorengoak kontuan harturik:

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dugu herri administrazio orok herritarrek egiten dituzten eskaerei idatziz erantzuteko betebeharra duela (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua).

Bestalde, aipatutako legearen 35 g) artikulua herritarren eskubidetzat jotzen du indarreko xedapenek egin nahi dituzten proiektuei, jarduerari edo eskaerari





ezarritako baldintza juridiko edo teknikoei buruzko informazioa eta orientazioa lortzea.

Ondorioz, kide profesionalek hainbat proiektu egiteko eskubidearen inguruan egindako alegazioekiko erantzun eza eta udalaren jarrera bermatzen zuten oinarri juridikoei buruzko informazio eza udalaren beharren urratze argia da eta Elkargoa babesgabetasun egoera argian jarri du administrazio-jardueraren aurrean.

Zentzu horretan, ez da nahikoa esatea Dekoratzaleen Elkargo Ofizialari formalki erantzun ez dioten arren azaldutako guztiaren inguruko informazio osoa eskaini dela interesdunarekin izandako hainbat elkarrizketetan, izan ere, idatziz egindako eskaera orok administrazio prozedurak eskatutako baldintza formal guztiak jasotzen dituen erantzuna behar du.

2. Oinarrizko gaiaren inguruan, kexan udalak barne dekoratzaile eta diseinatzaileei proiektuak idazteko eta, besteak beste, trastelekuak ezartzeko proiektu bat idazteko ezartzen dizkien mugak azaltzen dira.

Aurkeztutako udal txostenak lehenik eta behin azaltzen duenez, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzarako Kode Teknikoak (EKT) (zarataren aurkako babesari, irisgarritasunari, egituraren segurtasunari buruzko oinarrizko hainbat agiritan gaineratutako aldaketekin) 5.1.1. artikuluan zera adierazten du: *“Serán responsables de la aplicación del CTE los agentes que participan en el proceso de la edificación, según lo establecido en el Capítulo III de la LOE”*

Bigarrenik, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legea (EAL) aipatzen du, III. kapituluko 9. artikuluan eta hurrengoetan eraikuntzan parte hartzen duten agenteak definitzen baititu. Zehazki, EALren 10. artikulua aipatzen du, bertan azaltzen denez, proiektugilea, sustatzaileak hala enkargatuta eta dagokion araudi teknikoaren eta hirigintzako araudiaren mende, proiektua idazten duen agentea baita. Bere betebeharren artean, proiektugileak honakoa egin beharko du: *“estar en posesión de la titulación académica y profesional habilitante de arquitecto, arquitecto técnico, ingeniero o ingeniero técnico, según corresponda, y cumplir las condiciones exigibles para el ejercicio de la profesión”*..

Txostenak aipatzen dituen EKTk zein EALk **“eraikuntza”** dute hizpide. Beraz, legeak kontzeptu horren inguruan eskaintzen duen definizioa aztertu behar da. EALren 2.1. artikulua xedatzen du legea eraikuntza prozesuan aplikagarria dela, hau da, izaera iraunkorreko eraikin bat eraikitzeke ekintza eta emaitza gisa ulertuta. Artikulu bereko 2. atalean kontzeptua zehazten du, honako obrek, **Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako eraikuntzat hartuko direla** eta 4. artikuluan adierazitakoaren arabera proiektu bat beharko dutela azalduz:

*“b) Obras de ampliación, modificación, reforma o rehabilitación que alteren la configuración arquitectónica del edificio, entendiéndose por tales las que tengan carácter de intervención total o las parciales que produzcan una*





*variación esencial de la composición general exterior, la volumetría, o el conjunto del sistema estructural, o tengan por objeto cambiar los usos característicos del edificio.”*

Laburbilduz, lege horren aplikazioaren esparruan ez dira eraikuntzat hartuko eraikinaren konfigurazio arkitektonikoa aldatzen ez duten obrak, ez direlako erabateko esku-hartzeak ezta kanpoko egituran, bolumetrian edo egitura-sisteman funtsezko aldaketarik gabeko esku-hartze partziala ere. Ondorioz, EALren 10. artikuluan proiektugileei eskatzen zaizkien lanbide-titulazioak proiektatutako obrak 2. artikuluko definizioaren arabera eraikuntza baterako diren kasuetarako dira.

Bestalde, barne dekoratzaile eta diseinatzaileen eskumenak eta esleipenak euren lan-gaitasunak arautzen dituen apirilaren 1eko 902/1977 Errege Dekretuan legalki zehaztuta daude. Erregelamenduzko arau horrek 1. artikuluan xedatzen du dekoratzaileek honako esleipenak edukiko dituztela:

*“a) Formular y redactar, con eficacia jurídica y plena responsabilidad proyectos de decoración que no afecten a elementos estructurales resistentes, a la configuración de la edificación ni a las instalaciones de servicio común de la obra principal determinadas en el proyecto aprobado y objeto de las preceptivas licencias administrativas.*

*b) Dirigir los trabajos de decoración dentro de los límites del apartado anterior, coordinando todos los elementos que intervengan en los mismos y detallando soluciones adecuadas: programar, controlar y certificar su ejecución.*

*c) Concebir diseños de elementos de aplicación a toda decoración.*

*d) Controlar y valorar la calidad de los materiales y elementos que intervengan en dichas realizaciones de decoración.*

*e) Realizar valoraciones, peritajes, informes y dictámenes sobre proyectos y realizaciones de decoración.”*

Aldi berean, 2. artikulua dekorazio proiektuak definitzen ditu, instalazioa edo egin beharreko lana zehazten duten plano eta agiri multzoek osatutakoak. Gutxienez, memoria deskribatzaile bat, erabili beharreko material eta elementuen zehaztapen teknikoarekin, gauzatze aurrekontua eta uneko egoeraren planoak, plantako egoerarenak, altxaerenak eta sekzioenak izango ditu, eraginkortasunez burutu ahal izateko».

Gure ustez, beraz, ez dago kontraesanik arau baten eta bestearen artean. Hala azaltzen du berariaz Elkargoak aurkeztutako Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak, 2009ko urriaren 28koak, zera dioenean:

*“Pues bien, entiende la Sala que las competencias que el artículo 1.a) del RD 902/1977, atribuye a los decoradores no resultan cuestionadas por las*





*anteriores disposiciones de la Ley 38/1999, ya que las obras de reforma que contemplan y para las que exigen que el proyectista ostente la condición de arquitecto, ingeniero, o arquitecto técnico o ingeniero técnico son las que alteran la configuración arquitectónica de los edificios, que produzcan una variación esencial en su composición general exterior, volumetría, o el sistema estructural, o bien que tengan por objeto cambiar los usos característicos del edificio.”*

3. Bestalde, udal txostenak azaltzen du aurkeztutako epaia etxebizitza baten erreformari buruzkoa dela eta ez jarduera baten ezarpenari buruzkoa (kasu honetan trastelekuak dira), obra burutzapenarekin. Horiexek dira udalaren ustez dekoratzaileek Eraikuntzako Kode Teknikoa justifikatu ezin dituzteneko kasuak suteen aurkako, zarataren kontrako babeseko, irisgarritasuneko, egitura-segurtasuneko, etab. oinarrizko agirien bidez.

Aurreko atalean azaldutako argudioaren eta epaiak berriaz adierazitakoaren ildoan, **“eraikuntzaren erabilera bereizgarrien aldaketa”** izan ezean, jarduera komertzialerako erabilitako lokal baten gaikuntza ez litzateke proiektugilearen eskaeren mende egongo. Profesional horiek dagoeneko eraikita dagoen eraikuntza baten barne eremua egokitzeko edo berrantolatzeko obrak eragiten dituzten jarduera-proiektuak idazteko eskumena izango lukete eta proiektuaren egile den dekoratzaileak lokalaren erabilera berria defini dezake barneko dekorazioaren bidez, betiere, egiturazko elementuetan, eraikuntzaren konfigurazioan eta obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioetan eragina ez duten esku-hartzeak baldin badira, aurretik baloratu dugun EALren 2.2. artikuluan definituta dauden moduan.

Izan ere, epaiak berak gaia aztertzerakoan dekoratzaileen edo arte plastikoaren profesionalen esleipenak eta gaitasunak aipatzen ditu. Bereziki, Dekorazioko Obren Proiektuen eta Zuzendaritzaren arloko Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikariaren titulua aipatzean, gutxieneko izaerarekin eskainitako ezagutzen artean proiektuen ondorengo burutzapenaren euskarri diren teknologikoak daudela adierazten du, horren inguruko hainbat modulu gaineratuta, eta bertako edukien artean eraikuntzaren arau teknologikoen erabilera, barneko argiteriako instalazioen diseinua, ingurumen egokitzapena, isolamendu termikoa, isolamendu akustikoa, suteen aurkako babesa, etab. daude.

Trastelekuak jarduera-lizentzia eskuratzearen mendeko instalaziotzat jotzeari dagokionez, udalak teilatupeko espazioek edota merkataritzako berriazko erabilera ez duten bestelako lokalek udalerriko plangintza orokorrean duten kalifikazioaren dagokion balorazio juridikoa egin beharko luke, izan ere, Sestaoko udalerriko berriazko araudia ezagutzen ez dugun arren, trasteleku gisa erabilitako eremuak egoitza erabilerara lotuta egon ohi dira eta, beraz, printzipioz ez lirateke jardueratzat jo beharko. Kontu hori kontrastatzeko erreferentzia gisa balio zezakeen elementu bat da, udalak, etxebizitza eraikuntza berria eraikitzeke obra-





lizentzia dela-eta, trastelekuaren erabilera barne hartuta, garajeekin gertatzen den moduan, jardueraren berariazko proiektua eskatzen ote duen.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, aurretik azaldutakoaren arabera ezingo litzateke ukatu trastelekuak egokitzeko obren lizentziaren izapidea Elkargoko profesionalak proiektua idazteko eta obra zuzentzeko duten gaitasun falta alegatuz.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

1. Interesdunek proposatutako proiektu, jarduera edo eskaerei indarreko xedapenek ezarritako baldintza juridiko edo teknikoei buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko duten eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren protokoloak ezartzea.
2. Barrualdeen Dekoratzaila eta Diseinatzaileei dagoeneko eraikita dagoen eraikuntza batean barrualdeko ingurua egokitzeko edo birbanatzeko obrak barne har ditzaketen jarduera proiektuak egiteko eskumena aitortzea, trastelekuak barne, betiere, esku-hartze horiek egiturazko elementuetan, eraikuntzaren konfigurazioan, eraikinaren erabilera bereizgarrian eta obra nagusiko zerbitzu komunaren instalazioetan eragina ez badute.
3. Segurtasun juridikoaren babesean, udalak ezarrita dituen barne prozedura edo protokoloen bidez, proiektuen informazioan edo izapidetzeetan esku hartzen duten udaleko langile guztiei azaldutako irizpideak helaraztea, indarreko araudian eta jurisprudentziako interpretazioan oinarrituta.
4. Proiektu jakin baten irismenari eta hura sinatzen duen profesionalaren eskumenari buruzko desadostasuna dagoen egoera berezietan, udalaren ikuspuntua arrazoitzen duten txosten tekniko eta juridikoen ostean, behar bezalako ebazpena hartzea.

